

Heldu behar zen gripetik ez da eskapatzerik

Mexikoko gripearen sorreraz azaldu diren konspiraziozko teoriak alde batera utzita –industriaren asmakizuna dela, krisia estaltzeko operazioa...– eritasun hori gerta daiteke

XXI.eko epidemien eredu. Mundu hiritartu eta globalizatuaren ahuleziez gizendu dira birus berriak.

IDAZLE ETA KAZETARI ASKO SAIATU da udaberri honetako gripe berria desmitifikatzen. Bat aipatzeko, *Los desastres de la guerra* bloga egiten duen Gervasio Sanchez aragoitarrek alde-ratu ditu Mexikotik mundura hedatu den gripe berriak orain artean eragin dituen heriotza urriak eta aurretik planetak dituen beste izurriteenak. “24.000 pertsona hiltzen da egunero gosez, 3.000 malariatz, 3.500 tuberkulosiz, dengez ehunka. Hauek dira egiazkoak epidemia, pandemia edo dena delakoen zenbakiak, horiek astintzen dituzte gure bizitzak, eze-gonkorrago eginez”.

Baina beste eritasunen neurriak ikaragarriak direlako ez daukagu zertan mesprexaturik asteotan ludia kutsatzen ari dena. Espektakulua gorabehera, zerbaitengatik daude hain urduri mundu osoko agintariak gripe berriagatik. Bestalde, hegaztien, urdeen eta gizakien gripe ezberdinez osatutako oraingo hau esplikatzeke ez dago zertan asmatu-rik farma-industriaren inolako konspirazio-rik. Aspalditik iragarrita zegoena gertatu da, hori besterik ez.

2005ean Asia urrunetik hegaztien gripea hasi zen hedatzen, H5N1 motakoa, eta zenbaitek uste izan zuten hura suertatuko zela XXI. mende-ko lehen pandemia handia. Ez zen horrela gertatu. Baina eritasunotan adituek abisatu zuten orduan hegaz-

tietatik gizakietara birusak zuzenean jausi egitea erraza ez zen bezala, zerriak egin zezakeela bitartekari-lana. Alde horretatik, Mexikotik asteotan hedatu den H1N1 mota berriak soberan eman die arrazoi.

Soberan, zeren eta H1N1 berri hau hegazti, zerri eta gizaki gripeen osagaiz egina baitago. Baditu bere genomak osatzen duten 8 zatitatik hiru Eurasiako zerrien gripeetatik jasoak, beste bi Ipar Amerikako zerrienetatik, bat gizakiaren gripe-tik, eta bi Ipar Amerikako hegaztien aurkitzen dire gripeetatik. Kutsadura ez da, beraz, Asia urrunetik heldu, AEB aberatseko atari den Mexikotik baizik.

A motako gripe hau, bestalde, zerriagandik kristauoi ordainetan “aberastuta” datorkigun oparia da. Zientzia kazetari bermeduna den Javier Sampedrok ondo deskribitu du Madrilgo *El País* egunkarian, *El cerdo nos devuelve el regalo* artikuluan. Mexikoko gripearen genomaren aipatu zortzi zatietatik bi geuk urdeei pasatukoak dira, H1N1 zati bat 1918ko gripe “espainiarrean” kutsatutakoa eta H3N2 bat 1968an “Hong-Kongeko gripearekin” utzitakoa.

Xehetasun tekniko horiek, jakintsuen arteko eztabaidagai izateaz gain, edozein herritarri ematen dizkiote gripearen mekanismoak aztertzeke eta ondorengo urteetan zere-

Madrilgo *Público* egunkariaren blogetako batekoa da lerroon ondoko argazkia: Mexikotik iritsitako hegazkinetik jaitsi berri dira turista hauek. Arnasbideak estalita sartu dira aireportuan, gainerako jendeen ez kutsatzeagatik. Ezkerreko emakumearen tixertak ematen du gripe berri honen ezaugarrietako baten berri, munduko hiriburu saila baitauka inprimaturik, hegazkinezko bidaia azkarretan bereizi den globalizazioaren ikur. Urdeen gripe edo influenza deitu zaion arren, gizakietan espezializatua da, zerrien, hegaztien eta pertsonen aurreko birusen aztarnaz osatua. Adituek espero dute ondorengo asteetan motelduko dela gripe honen eragina, baina zalan-tza gehiagoz daude udazkenari begira, gogorrago itzuliko den beldur baitira.

kin aurkituko den pentsatzeko pista baliozkoak.

3Lehenbizikoa, zerrien eta pertsonen artean gaitzotan dagoen harreman estua, bien immunitate sistemek elkarren antza handiagoa dutelako beste animaliena baino. Zerria behin eta berriro azaltzen da mota honetako gaitzetan bitartekari lanak egiten, gizakiaren birusak bere bidez beste animalietara iraganaraziz, eta alderantziz, beste animalienak –hegaztienak bidenabar– zerritegi-etan barna gureganako bidean ipiniz.

Zerritegiak laborategi

Bigarren pistak lotzen ditu birusok eta abelazkuntza industrialak. Orain baino lehen, 2003an, *Science* aldizkariak gripear buruzko dossierrean nabarmendua zuen: urdeen gripea borrokatzekotan aldatu beharra dagoela aziendok hazteko sistema.

Zerri granjak ez dira gauza berria, baina 1990eko urteetan nekazari txerri-dunak urritu ahala zerritegien tamaina izugarri handitu zen. *Science* erakutsi zuen 500 zerri baino gehiagoko haztegiak hamarkada batean %18 izatetik %53 izatera iritsi zirela, eta ez zela denbora galdu behar Asiako herrialdeei higieni-neurriak eskatuz, AEBetan bertan aldatu behar zela sistema.



Mexikoko influenza eraso hau demostratuta dago Veracruz estatuko La Gracia herrixkatik sakabanatu zela. Perote herriko auzune horretan dauka zerritegi faraonikoa Granjas Carroll haragi multinazionalak, urtean 500.000 zerri hazi eta hiltzen dituen, Smithfield markarekin salduz. *All natural* da bere leloa...

Abelazkuntzak bizi duen kontzentrazioaz hona beste datu bat, globalizazioaren eta munduaren hiritartzearen behatzaile famatua den Mike Davisek emana: 1965ean AEBetan 53 milioi urde zeuden milioi bat ukuilutan banatuta. Gaur 63 milioi urde, 65.000 zerritegi handitan.

Munduan alarma askoz berandua gogor eman zen arren, Veratect Corpora-

tion ikerketa enpresak apirilaren 2an piztu zuen argi gorria: Perote herri txikian 400dik gora ziren arnasbideetako infekzioak zituztenak. Ordurako, aurreko aste eta hilabeteetan, uste da Peroteko auzotarren %60k nozitu zituela antzeko osasun arazoak, 1.800 jende baino gehiagok.

Herri horretan zerritegitzarrek eragindako kutsaduraren kontrako protestak ugari izan dira 2007tik. Kiratsa, eltxoak, putzuetako ura edan ezina, kea... Liskarretan atxiloturik ere izan da. Alferrik. Gero, apiril hondarrean, pandemiaren musikarekin kazetariak hurbildu ziren herrira, baina inguru hura "0 eremua" izendatzeaz gain ez dute informazioan asko sakondu. Honaino bestelako oihartzunak heldu dira munduko prentsa irakurketa

berezia egiten duten blog eta webgurenei esker.

Peste honetaz egin diren analisisen artean, nabarmentzekoa da janariaren krisiaz eta lur lapurretaz okupatzen den GRAIN erakundeak plazaratutakoa. Abelazkuntza industrialak granja erraldoietan aziendak metatuz, hauek birusak, bakterioak eta bestelako izakiak sekulako abiaduran ugaltzeko eta eten gabe eraldatzeko laborategi bihurtu ditu. Gainera, ukuilu handiok herrialde txiroetan kokatu ditu, metropolian inork auzoan nahi ez dituelako.

Aldi berean, aziendok antibiotikoz asetzen dira eta txertoekin tratatzen. Horrela produkzioa errentagarria da epe laburrean, baina luzera begira mikrobio sail bortitza goak doaz azalduz. Antzekoa gertatzen da gure ospitaleetako kirofanoetan, non pixkanaka sortu baititugu orain arteko antibiotikoei menderatu ezin dituzten bakterioak. Baina hari honek, ditugun lagun mediku gutxiekin haserretzeaz gain, ARGIA oso baterako gaia emango luke.


Azken bi hamarkadotan sendotu den eredu globalizatzaileak ez zuen aski, nonbait, finantzen krisiarekin, ingurumenaren estualdiarekin eta guztiaren ondorioz mundu osoan berotzen ari den haserrealdi sozialarekin. Ekaitz perfektu bat bailitzan, zoriak pandemia baten oparia egin dio munduari, mundutarrok abioiz di-da azkarrean barreiatu dioguna. Hurrengo atala, udazkenean. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

